

## Bilduma

Euskararen Erakunde Publikoaren Aholku Batzordea 2008ko Irailaren 10ean bildu da, Max Brisson Jaunak kudeaturik.

## Compte rendu

Le Comité Consultatif de l'Office Public de la langue basque s'est réuni le 10 Septembre 2008 sous la présidence de Mr. Max Brisson.

### **Bilkuran parte hartu dutenak :**

Eskualde Kontseiluaren EEPko Administrazio Kontseilu kide (Sylviane Alaux); RadioKultura (Mikel Etxebarria); Hezkuntza Ministeritzako ikuskaritza karguduna (Jakes Sarraillet); Zabaldu (Francis Carricart); Iker (Jasone Salaberria); Berria (Aitor Renteria); CDDP (J Pierre Giardi); Biga Bai (Josiane Libier); Lema (Amaïur Alfaro); SPELC (Isabelle Caldumbide); Euskal Haziak (Paxkal Bourgoïn, Leslie Barraquet); Aldudarrak Bideo (Ximun Carrere); AEK (Jakes Bortayrou, Bea Sallaberry); Euskal Konfederazioa (Sébastien Castet); Kontseilua (Jone Josié); Luma Hartzaindegia (Dominika Ortuno); Seaska (Hur Gorostiaga, Paxkal Indo); FCPE (Nicolas Graeff); Xitoak Hartzaindegia (Odile Damestoy); Euskal Irratiak (Gilles Haran); Angeluko Ikasleak (JF Harriet, Lasquibar); CGT/FO (Alain Teston); Iparralai (Xavier Coste); Ikas Bi (Christian Detchart, Jean Iturburua); DDEC (Maite Oxandabarats); Atlantica (AM Rocchi); Aztibegia (Gorka Altuna, garikoitz Mugika); Baigura Communication (Agus Hernan); Antxeta Irratia (Aitziber Zapiain, Aitor Errazkin); Basaizea (Argia Olçomendy); Euskaltzaleen Biltzarra (Piarres Aintziart); Garazikus (Jon Lissar); Erramun Bachoc; Euskal-Media (A. Ithurbide); Ikas (Aines Dufau); CDDP64 Baiona (David Kowalczyk); FSU (Senderain Cécile); B.Nafarroako Euskara Teknikaria (Mattin Bacho); Biarritzeko Euskara teknikaria (Mixel Esteban); EEP (JC Iriart, Maider Bergouignan, Amaia Licheratçü, Ttitto Betbeder, Naroa Gorostiaga),

### **Ont participé à la réunion :**

Conseil Régional Siégant au CA de l'OPLB (Sylviane Alaux); RadioKultura (Mikel Etxebarria); Chargé de Mission Education Nationale (Jakes Sarraillet); Zabaldu (Francis Carricart); Iker (Jasone Salaberria); Berria (Aitor Renteria); CDDP (J Pierre Giardi); Biga Bai (Josiane Libier); Lema (Amaïur Alfaro); SPELC (Isabelle Caldumbide); Euskal Haziak (Paxkal Bourgoïn, Leslie Barraquet); Aldudarrak Bideo (Ximun Carrere); AEK (Jakes Bortayrou, Bea Sallaberry); Euskal Konfederazioa (Sébastien Castet); Kontseilua (Jone Josié); Luma Hartzaindegia (Dominika Ortuno); Seaska (Hur Gorostiaga, Paxkal Indo); FCPE (Nicolas Graeff); Crèche Xitoak (Odile Damestoy); Euskal Irratiak (Gilles Haran); Angeluko Ikasleak (JF Harriet, Lasquibar); CGT/FO (Alain Teston); Iparralai (Xavier Coste); Ikas Bi (Christian Detchart, Jean Iturburua); DDEC (Maite Oxandabarats); Atlantica (AM Rocchi); Aztibegia (Gorka Altuna, garikoitz Mugika); Baigura Communication (Agus Hernan); Antxeta Irratia (Aitziber Zapiain, Aitor Errazkin); Basaizea (Argia Olçomendy); Euskaltzaleen Biltzarra (Piarres Aintziart); Garazikus (Jon Lissar); Erramun Bachoc; Euskal-Media (A. Ithurbide); Ikas (Aines Dufau); CDDP64 Baiona (David Kowalczyk); FSU (Senderain Cécile); Technicien langue basque de B.Nafarroa (Mattin Bacho); Technicien langue basque de Biarritz (Mixel Esteban); OPLB (JC Iriart, Maider Bergouignan, Amaia Licheratçü, Ttitto Betbeder, Naroa Gorostiaga)

## **BILKURAREN GAIORDENA**

Lehendakariak gai-ordena oroitarazi du :

1. Aholku Batzordearen lan egiteko molde berriaz proposamena
2. EEPren 2008ko jardueren aurkezpena
3. Oharrak
4. Beste gaiak

### **1) Aholku Batzordearen funtzionamendua**

Euskararen Erakunde Publikoaren sorreraz geroztik hiru urte baino gehiago iragan ondoan, Aholku Batzordearen ibilmoldeak zehazte beharra izan du, EEPk duen egutegia eta daramazkien eginkizunei hobeki egokitzeko, bereziki Hizkuntza Politika Proiektua 2006ko abenduan onartu zenetik.

Izan ere, data hartatik hona, Hizkuntza Politika Proiektuaren obratzeak eta bertan ageri diren norabideen jarraipenak baitu EEPren antolaketa gehienik baldintzatzen.

Jarduera programa, Administrazio Kontseiluak finkatu lehentasunen eta hauen gauzatzeen arabera erregulariki osatua eta eguneratua da.

Aholku Batzordeak Hizkuntza Politika Proiektuaren definitzeko unean ekarpen baliosa egin du. Beharrezkoa izan da orain, Hizkuntza Politika Proiektuaren egungo gauzatze urratsean ere, Aholku Batzordeak bere rola osoki betetzeko, egokia izanen den funtzionamendua bilatzea.

### **Aholku Batzordearen ibil moldeari ekarri aldaketak**

1. Aitzinkontua eta jarduera programaren onartzea, egituraren ibil moldean une garrantzitsua da. Aholku Batzordeak bere ikusmoldearen agerrarazteko ahala aukan dezan, ondoko egutegia antolatuko da:

## **ORDRE DU JOUR DE LA SEANCE**

Le Président rappelle l'ordre du jour :

1. Proposition sur les nouvelles modalités de fonctionnement du Comité Consultatif
2. Bilan d'activités 2008 de l'OPLB
3. Discussions
4. Questions diverses

### **1) Modalités de fonctionnement du Comité Consultatif**

Plus de trois ans après la création de l'Office Public de la Langue Basque, les modalités de fonctionnement du Comité Consultatif nécessitent d'être précisées pour mieux s'adapter au calendrier et au déroulement des activités menées par l'OPLB, depuis l'adoption du Projet de Politique Linguistique en décembre 2006.

Depuis cette date, c'est en effet la mise en œuvre progressive et le suivi des orientations inscrites au Projet de Politique linguistique qui conditionne principalement l'organisation de l'OPLB.

Le programme d'activités est élaboré et régulièrement actualisé en fonction des priorités fixées par le conseil d'administration et du rythme de réalisation.

Le Comité Consultatif a apporté une contribution précieuse à la définition du Projet de Politique Linguistique. Il convient de rechercher maintenant un mode de fonctionnement qui lui permette aussi, de jouer pleinement son rôle dans la phase actuelle de mise en œuvre du Projet de Politique linguistique.

### **Les améliorations à apporter au fonctionnement du Comité Consultatif**

1. L'adoption du budget et du programme d'activités constitue un moment important dans le fonctionnement de la structure. Pour permettre au Comité Consultatif de pouvoir s'y exprimer, le calendrier suivant pourrait être envisagé :

- Prestakuntza: urria/ azaroa
- Bulegoak aztertzen : azaro hondarrean
- Aholku Batzordean aurkezpena iritziaren biltzeko: abenduko lehen hamabostaldian
- Administrazio Kontseilua: abenduko bigarren hamabostaldian.

- Préparation : octobre/ novembre
- Examen par le bureau : fin novembre
- Présentation au Comité Consultatif pour avis : 1<sup>ère</sup> quinzaine de décembre
- Conseil d'Administration : 2<sup>ème</sup> quinzaine de décembre.

2. Aholku Batzordearekilako bigarren topaketa une bat antolatuko da urtero, garatzen ari idiren ekimenen aurkezteko eta Hizkuntza Politika Proiektuak finkatu norabideen obratzeaz bilduma erregularraren egiteko gisan. Urteroko biltzar hori, ekain hondar/uztail hastapenean iragan liteke.
3. Bi Osoko Biltzar horien datak, hilabete bat aitzinetik kideei jakinaraziko zaizkie. Lan dokumentuak, berantenez biltzarra iragan baino astebete lehenago helaraziko zaizkie.
4. EEPk biltzarraren bilduma labur bat idatziko du, hitz-hartzeak eta hauen gaiak aipatuz. Parte hartzaile bakoitzak testu idatzi baten helarazteko aukera izanen du, biltzarraren bildumari txertatuko zaiona.
5. Uneko bilkurak : Gaika, unean uneko bilkurak antolatzen ahalko dira urtean zehar, beharren arabera.

2. Un deuxième temps de rencontre avec les membres du Comité Consultatif pourrait être organisé chaque année, pour exposer dans le détail les activités développées ou en cours, dresser un bilan d'étape régulier sur la mise en oeuvre des orientations fixées dans le Projet de Politique Linguistique. Cette réunion annuelle pourrait être programmée fin juin / début juillet.
3. Les dates de ces deux assemblées plénières seraient communiquées aux membres un mois auparavant. Les documents de travail leur seront adressés au plus tard une semaine avant la tenue de la réunion.
4. L'OPLB rédigera un compte rendu synthétique de la réunion qui mentionnera les interventions et les thèmes évoqués par ces derniers. Chaque participant aura la possibilité de transmettre un texte écrit qui sera joint au PV de réunion.
5. Réunions ponctuelles : des réunions ponctuelles par thèmes pourront être organisées tout au long de l'année en fonction des besoins.

Ibilmolde berri hau Aholku Batzordeko kideei aurkeztu ondotik eztabaidatua izan zen.

Les nouvelles modalités de fonctionnement du Comité Consultatif ont fait l'objet d'un échange avec l'assemblée plénière.

## 2) EEP-ren jardueren bilduma eta langileen arteko lan antolaketa

Presidentek hitza eman dio EEP-ko zuzendariari, EEP-ren jardueren bilduma aurkez dezan. Aurkezpena Aholku Batzordeko kideei banatutako dokumentuan oinarritu da.

Dokumentu honen zeregina, EEPk burutu jarduera guzien azaltzetik doa, urratsez urrats zenbaitzuentzat sortze egunetik hona plantan jarri diren lan tresnak edo 2008an obraturikoak zehaztuz.

### 3) Oharrak

Aholku Batzordeekilako eztabaida abiatu da ondotik. Hemen ondoan duzue hitzartzeen zerrenda, hunkituriko gaiekin :

## 2) Bilan d'activités de l'OPLB et organisation du travail au sein de l'équipe permanente

Le Président donne la parole au directeur de l'OPLB afin de présenter les différentes activités développées par l'OPLB dans le cadre de chantiers initiés pour certains depuis la phase de démarrage ou mis en oeuvre au cours de l'année 2008.

Cette présentation s'appuie sur un document de synthèse diffusé auprès des membres du Comité Consultatif.

### 3) Discussion

La discussion a ensuite été ouverte avec les membres du Comité Consultatif. Ci-dessous la liste des intervenants avec mention des thèmes abordés:

- 1) Euskal Konfederazioa : (Ikus eranskina)
  - Aholku Batzordearen ibilmoldea
  - Herriko Etxeen lan ildoak
  - Euskara Teknikarien sarea
- 2) Erramun Bachoc : (Ikus eranskina)
  - CNFPTri buruzko desmartzak
  - INSEEaren errolda
- 3) Seaska : (Ikus eranskina)
  - Akademia Ikuskaritzarekilako bitartekaritza
- 4) Kontseilua : (Ikus eranskina)
  - Euskararen kalitatea
  - Ikastereduak
  - Hutsuneak
- 5) FSU :
  - Hezkuntza Nazionala eta EEPren arteko harremanak
  - Irakaskuntzako diagnostiko kualitatiboa
- 6) AEK :
  - Posta eta SNCFekiko harremanak
  - Frantziar legebiltzarreko 2009ko lege proiektua
- 7) JPB
  - Komunikabide frantsesdunen arteko lantalde baten sortzea
  - Proiektu deialdiaren inguruko hitzordu esaera Mintzari buruz
- 8) Jakes Sarraillet
  - Euskararen balioa Baxoan
- 9) Argia Olçomendy :
  - Brevetaren euskararen tokia

Aipaturiko gaien bilduma eginga izanen da EEPko Administrazio Kontseiluan.

#### 4) Beste gaiak

Lehendakariak jakinarazi du orain arte EEPko zuzendari izan den Jean Claude Iriartek bere kargua utziko duela, Kontseilu orokorrak Baionan dituen zerbitzuen Zuzendari izendatu baitu Kontseilu orokorreko Jean Castaing presidentak.

- 1) Euskal Konfederazioa : (Cf. Document joint)
  - Fonctionnement du Comité Consultatif
  - Travail auprès des municipalités
  - Réseau des techniciens de la langue basque
- 2) Erramun Bachoc : (Cf. document joint)
  - Démarches vis à vis du CNFPT
  - Le recensement INSEE
- 3) Seaska : (Cf. document joint)
  - Médiation avec l'Inspection Académique
- 4) Kontseilua :
  - Qualité de la langue basque
  - Modèles d'enseignement dans les Communautés d'Euskadi et Navarre
  - Les lacunes
- 5) FSU : (Cf. document joint)
  - Les rapports entre l'éducation nationale et l'OPLB
  - Chantier qualitatif de l'enseignement
- 6) AEK :
  - Contacts avec la Poste et la SNCF
  - Le Projet de loi de l'Assemblée Nationale pour 2009
- 7) JPB
  - La création d'un groupe de travail entre les médias francophones
  - La demande de rendez-vous dans le cadre de l'Appel à Projets pour Mintza
- 8) Jakes Sarraillet
  - valorisation de la langue basque dans le Baccalauréat
- 9) Argia Olçomendy :
  - La place de la langue basque au Brevet des Collèges

L'ensemble des questions évoquées fera l'objet d'un compte-rendu au Conseil d'Administration de l'OPLB.

#### 4) Questions diverses

Le président informe les membres du Comité consultatif que le Directeur actuel de l'OPLB Jean Claude Iriart quitterait ses fonctions car il a été nommé Directeur des Services adjoint du Conseil Général à Bayonne par le président Jean Castaing.



## EEPko AHOLKU BATZORDEA – 2008ko IRAILAREN 10EKO BILKURA EUSKAL KONFEDERAZIOAREN OHARRAK / GALDERAK

### ➤ Aholku Batzordearen ibilmoldea

2008ko otsailean EEPri gutun bat igorri zion Euskal Konfederazioak, Aholku Batzordearen ibilmoldeari buruz hainbat eskakizun egiteko. Euskal Konfederazioa pozten da ikusteaz ia eskakizun gehienak kontuan hartu dituela EEPk ibilmolde bat proposatzerakoan.

Hala ere, bi eskakizun berriz luzatu nahi dizkio EEPri, kontuan hartuko dituelakoan :

- Hizkuntza proiektua eratzen laguntzeko biltzen ziren lan taldeak urtean zehar eta beharren arabera biltzea. Atal berezi batzuen inguruan EEP zenbait eragilerekin erregulariki biltzen bada ere (Biga Bai, Euskal Haziak eta Seaskarekin irakaskuntza arloan edota AEKrekin administrazio desberdinetako langileen formakuntzari buruz adibidez), ongi litzateke beste lan taldeak ere biltzea, hots talde tematikoak antolatzea (euskararen presentzia bizi sozialaren atalaren inguruan besteak beste)
- Aholku Batzordea prestatzeko lan dokumentuak bilkura baino zenbait aste lehenago igortzea

### ➤ Herriko etxeen lan ildo

Ildo horren inguruan informazio gehiago ukan nahi lituzke Euskal Konfederazioak:

- Hitzarmenak: zenbat herriko etxe berrik izenpetu du EEPk proposatu hitzarmena ? Edo zenbat engaiatu da euskararen aldeko neurriak hartzen ? Ongi litzateke taula bat urtero egitea engaiatzen diren herriko etxeen kopuruaren bilakaera ikus dezagun
- Langileen formakuntza: zenbat langile ikasten du euskara ? Ongi litzateke urtero taula bat ukatea nun zehaztuko litzatekeen zenbat herriko etxek abiatu duen formakuntza plana, zenbat langile igorritz..., hor ere helburua kopuruaren bilakaera urte batetik bestera ikustea delarik.
- Erabili metodologia eta ebaluaketak: Euskal Konfederazioak erabiltzen zuen metodoarekin segitzen du EEPko euskara teknikarien sareak edo beste bat erabiltzen du ? Zenbatero egiten dira ebaluaketak ? Urtero Euskal Konfederazioak egiten zuen bezala ?

### ➤ Euskara teknikarien sarea

Desorekak ikusten dira herri elkargo batetik bestera. Zonalde batzuetan teknikari batek 60 herri estali behar ditu (Baxe Nafarroan), beste batzuetan 12 (Hego Lapurdiko herri elkargoan) edo 35etaz arduratu behar du bainan denbora erdiz lan eginez (Xiberoko herri elkargoan).

- Euskara teknikarien sarea osatzeko asmoa ote du EEPk ?
- Konbenio berri batzuk aurreikusiak dira (herri elkargo edo herriko etxe berriekin) ?



## COMITE CONSULTATIF DE L'OPLB – REUNION DU 10 SEPTEMBRE 2008

### REMARQUES ET QUESTIONS DE EUSKAL KONFEDERAZIOA

#### ➤ Fonctionnement du Comité Consultatif

En février 2008 Euskal Konfederazioa adressait un courrier à l'OPLB concernant les modalités d'organisation du Comité Consultatif. Si Euskal Konfederazioa se réjouit de voir que la plupart des demandes formulées dans ce courrier ont été prises en compte par l'OPLB, elle souhaite néanmoins rappeler deux de ses propositions:

- La convocation, tout au long de l'année et en fonction des besoins, des différents groupes de travail ayant pris part à l'élaboration du projet de politique linguistique de l'OPLB. Si l'OPLB travaille déjà régulièrement en collaboration avec des associations autour de thèmes bien précis (Biga Bai, Euskal Haziak et Seaska pour le volet enseignement, ou encore AEK en ce qui concerne la formation du personnel des différentes administrations), il conviendrait d'élargir ce travail de collaboration aux autres groupes thématiques (et notamment concernant le volet « place de la langue basque dans la vie sociale »)
- L'envoi des documents préparatifs plusieurs semaines à l'avance

#### ➤ Travail auprès des municipalités

Euskal Konfederazioa souhaiterait obtenir de plus amples informations concernant cet axe de travail, et plus particulièrement concernant les trois points suivants:

- Conventions: combien de mairies ont-elles signé la convention proposée par l'OPLB ? Combien se sont engagées à prendre des mesures en faveur de la langue basque ? Il serait judicieux de présenter ces résultats sous forme d'un tableau qui permettrait une meilleure visibilité de l'évolution du nombre de mairies d'une année à l'autre
- Formation du personnel: combien d'agents suivent une formation à la langue basque? Ici aussi il conviendrait de présenter l'évolution des effectifs dans un tableau (liste des mairies ayant mis en place un plan de formation, nombre d'agents suivant une formation avec des données par mairies, par niveaux...).
- Méthodologie et évaluations: le réseau des techniciens de la langue basque suit-il la méthodologie qu'utilisait Euskal Konfederazioa? Est-il procédé à des évaluations ? Avec quelle fréquence ? Selon quels critères ? ...

#### ➤ Réseau des techniciens de la langue basque

Nous observons des déséquilibres d'une zone géographique à l'autre : un technicien doit effectuer un travail d'animation sur 60 communes (Basse Navarre), un autre sur 12 communes (Communauté de Communes Sud Pays Basque), un troisième sur 35 mais en travaillant à mi-temps (Communauté de Communes de Soule).

- L'OPLB a-t-il l'intention de renforcer ce réseau de techniciens ?
- De nouvelles conventions sont-elles envisagées (avec des Communautés de Communes ou avec des mairies) ?

## **Aholku batzoderako ekarpena (2008-09-10)**

Euskararen erakunde publikoak parte hartu zuen, 2007ko azaroan Kanbon iragan ziren Eskualdearteko Topaketetan. Gai nagusia "Hizkuntz politika" zen eta Euskararen erakundea jarraibide bezala agertu zen. Biltzar Nagusiak bi erabaki hartu zituen Erakundearen eginbideetan sartzen direnak :

*1. Le Centre national de la fonction publique territoriale (CNFPT) – L'Association demande au CNFPT de prendre en charge la formation à la communication bilingue des personnels des Collectivités locales en prenant en compte les besoins spécifiques de chaque territoire.*

*2. Le recensement – L'Association recommande à l'INSEE que l'enquête "Transmission familiale des langues et des parlers" soit réintroduite dans le nouveau mode de recensement.*

Bi gaietan estrategia bera hautatu zen, lehenik eskaera Eskualde bakoitzean egitea, gero bulegoa Pariseko erakunde nagusiarekin harremanetan sartuko da. Gomendioa : Euskararen erakundea litzateke eragile egokiena Euskaldeari buruzko harremanak eramateko.

Erantzuna : Galde bera egin da aitzinagoko biltzarrean. Bi proiektuak interesgarriak dira, baina lehentasunak diren bezala ezin ziren Euskararen Erakundearen agendan sartu. Dena dela harreman baliosak lotu dira Topaketeten ondotik.

## **Contribution au Comité consultatif (2008-09-10)**

L'Office public de la langue basque a pris part aux Rencontres Interrégionales à Cambo en novembre 2007. Le thème central étant "la politique linguistique" l'Office public a été perçu comme un modèle à suivre. Or deux résolutions votées en assemblée générale le concernent particulièrement :

*1. Le Centre national de la fonction publique territoriale (CNFPT) – L'Association demande au CNFPT de prendre en charge la formation à la communication bilingue des personnels des Collectivités locales en prenant en compte les besoins spécifiques de chaque territoire.*

*2. Le recensement – L'Association recommande à l'INSEE que l'enquête "Transmission familiale des langues et des parlers" soit réintroduite dans le nouveau mode de recensement.*

Dans les deux cas la stratégie adoptée est d'effectuer une démarche auprès de sa région, le bureau se chargeant de prendre contact avec l'organisme central à Paris. Suggestion: l'Office public serait l'organisme le plus adéquat pour effectuer ces deux démarches régionales.

Réponse : Cette même question a été posée à la précédente réunion. Les deux projets sont intéressants mais vu les urgences, ils n'ont pas pu entrer dans l'agenda de l'Office public. Par ailleurs des contacts utiles ont eu lieu à la suite des Rencontres.

*Erramun Bachoc*



BAIONA, 2008ko Urriaren 31a

Max Brisson  
EEPko lehendakaria  
64100 BAIONA

**Gaia : Aholku Batzordea**

Jaun agurgarria,

Ondotik aurkituko duzu Seaskak irailaren 10eko aholku batzordean egin duen hitzartzea.

Besterik gabe laster arte.

« Paxkal INDO Seaskako lehendakariak Euskararen Erakunde Publikoko arduradunak, eta bereziki Max BRISSON eta Jean-Claude IRIART, eskertu ditu Hezkuntza Ikuskaritza eta Seaskaren artean bitartekari lanak eginagatik joan den urtarilaz geroz. Seaskako lehendakariak konpondu beharreko arazoan zailtasuna azpimarratu du eta aterabide bat atzemateko bere gogoan agertu du. Bestalde, euskararen eta euskarazko irakaskuntza arloan burasoen eskaerek erantzun egokia ukan dezaten botere publikoek beren ahaleginak bikoiztu behar dituztela adierazi du ».

*Monsieur,*

*Veillez trouver ci-joint l'intervention de Seaska lors de la réunion du Conseil de la Langue le 10 septembre 2008.*

*« Paxkal INDO, président de Seaska a remercié les responsables de l'Office Public de la langue basque et plus précisément Max BRISSON et Jean-Claude IRIART, pour le travail de médiation réalisé entre l'Inspection Académique et la Fédération Seaska depuis janvier. Le président de Seaska a souligné la difficulté de cet exercice et souhaite que ces pourparlers permettent de trouver une solution aux problèmes à résoudre. Par ailleurs, il a également souligné la nécessité pour les pouvoirs publics de redoubler d'efforts afin que l'attente des parents en matière d'enseignement de la/et en langue basque soit prise en considération ».*





## EEPKO AHOLKU BATZORDEA – 2008KO IRAILAREN 10EKO BILKURA KONTSEILUAREN EKARPENAK

Urteko jarduerari doakionez zombait ohar :

**1. Euskararen kalitatea zaindu: Galdera hori ez dugu publikoki pausatu nahi izan, baina funtsezkoa iruditzen zaigun puntua da.**

- Euskarazko bertsioa ez da oso ulerkorra. Kalitate txarrekoa eta nahasia da, ondorioz, nekez ulertzen dugu esan nahi dena. Bi motako hutsuneak ageri dira, gramatikalak eta itzulpen arazoak. Gure oharra irudikatzeke bi adibide emanen ditugu:
  - 2. orria: “ *Seaska eta Hezkuntza Nazionalaren arteko azterketa tresna komun baten eraikitzeke proiektua adostu du, lehen mailako postuen banaketa irizpideak finkatzen dituen*”.
  - 16. orrian, euskarazko bertsioak dio: « *Aitzinetik HP proiektuak finkatu koadro legala egotea, izugarri baliosa da eta EEP-ri euskararen aldeko HP publiko bat urratsez urrats egituratzea ahalbidetzen dio ...*».Haatik, frantsezkoa beste esanahi bat badu : “ *L’existence d’un cadre préalable fixé par le Projet de Politique Linguistique est ici extrêmement précieuse et permet à l’OPLB de structures progressivement une politique linguistique en faveur de la langue basque...*”

Dakigunez, euskarak ez du koadro legalik, ez du babesik eta azken hilabete hauetan, Konstituzioak onartu aipua ez dio babes ofizialik ematen. Ez dugu koadro legalik. Euskarazko itzulpena kaltegarria da, eta esaten dena faltsua da. Kontuz ibili behar da horrelako nozioekin.

Finean, EEP-k euskararen kalitatea zaindu dezan garrantzitsua iruditzen zaigu, area gehiago, bere helburuetan delarik.

**2. Azken urteetako jarduerari doakionez:**

• **Ikastereduak:**

Ekarpen gisa ohar bat egin nahi genuke, ikastereduak aintz aipatzen dira, EEP-k irakaskuntza alorrean egin ditu indar nagusienak. Haatik, EAE-n eta Nafarroan ikastereduen erreformak abiatu dira. EEP-ri galdegin nahi genioke, hegoaldean gertatzen ari dena estuki jarraitu dezan, hango esperientzia baliagarri izan dadin, huts berdinak ez ditzan errepikatu, erreforma hauek hurbiletik aztertu ditzan eta hauen onura nola ekarri honera gogoetatea.

• **Hutsuneak:**

Ez da lehen aldia oharra egiten zaiola EEP-ri, HP egitasmoak hutsuneak ditu, batez ere bizi soziala atalean, administrazioan edo alor sozioekonomikoan, esate baterako. Azken urte hauetan egindako bilanak erakusten du, bizi soziala atala, oro har, gutti garatu dela, administrazio orokorrak, osasungintza, unibertsitatea... ez dira aipagai. Unibertsitateak badu bere garrantzia. Izan ere, EEP-ren helburu nagusietan gazteen euskalduntzea ageri da, hau da, irakaskuntza sailak garrantzia handia hartzen du HP egitasmoan, partaidetzak egiten dira unibertsitatearekin (adibidez, labelari doakionez), baina ez da aipatzen goi mailako ikasketekin zer asmo den, Unibertsitatea eta lanbide heziketa, irakaskuntza alorreko azken zikloa, euskaraz, eta euskalduntzeko planik, asmorik ere ez da ageri. Zein da EEP-ren asmoa? Noizko?

Bukatzeke, Aholkularitza Batzordean pausatu diren galderak direla ohartarazi nahi dizuegu, baina, ez diezue erantzunik eman. Zuen erantzuna jaso nahi genuke.

### **Intervention de Cécile Senderain pour la FSU en séance plénière de l'OPLB du 10/09/08**

Je voudrais revenir sur les rapports entre l'OPLB et l'Education Nationale.

L'éducation Nationale est signataire d'une convention avec le Conseil Général. L'OPLB est maître d'œuvre. Jusqu'à présent l'OPLB travaillait en amont et chaque fois qu'il y avait possibilité d'ouvrir une section bilingue, à la rentrée suivante l'ouverture était effective. L'Education Nationale jouait le jeu. A ce jour elle a signé le volet qualitatif où l'orientation prévoit l'expérimentation de dispositifs augmentant le temps d'exposition de l'enfant à la langue basque. Lundi dernier, lors du comité qui attribue les postes, deux demandes étaient examinées. Elles étaient toutes deux l'aboutissement d'un long temps de maturation, de travail de partenariat avec l'OPLB. L'une a été acceptée l'autre refusée. Ce refus n'a à notre avis qu'une explication : la volonté de ne pas accorder un moyen supplémentaire (1/4 de poste !).

Pour palier ces problèmes, il faut demander une dotation spécifique pour l'enseignement de et en langue basque.

Pour la FSU  
Cécile Senderain